

# AZAROAREN 29KO BLACK FRIDAY

## AMAZONEN OSTIRAL BELTZ BIHURTU NAHI DUTE FRANTZIAN

Urriaren 12an Total petrolio konpainiaren, Amazon banatzailearen eta BNP-Paribas bankuaren bulegoak “Hors-service” (funtzionatu ezinik, panan) uzten saiatu ziren Frantziako Estatu osoan. Orain Attaceko militanteek, beste zenbait mugimendutakoekin elkarlanean, kontsumismo globalizatuaren ikurretako bat den on-line banatzaile erraldoiari *Black Friday* amesgaizto bihurtu nahi diote: azaroaren 29a Amazonen Ostiral Beltza izatea lortu nahi dute.

### PELLO ZUBIRIA KAMINO

**A**zaroaren laugarren ostiralak abiatzen du mundu osoan Eguberri aurreko erosketa sasoia, AEBetatik zabaldua orokortu zenetik *Black Friday*: salmenten multinazional handiek herritarren kontsumo-egutegian *betiko* ospakizuntzat txertatu dute, gero eta urriagoak diren komertzio txikiei zintzurak gehiago estutzeko. Egun horixe hautatu du Attac mugimendu altermundialistak kontsumoa monopolizatu nahi duten saltzaile handienetako bat, Amazon, zigortzeko.

Attacek urriaren 12an sabotaje simbolikoak antolatuta zituen Frantziako Estatu dozenaka herri eta hiritan Total, Amazon eta BNP-Paribasen kontra, salatzen multinazionalak iruzur fiskala tarteko estatuari urtero dirutza handiak ostuz ongizate gizartea urpera daramatela eta eskatuz zerga sistemaren injustizia ezabatzea.

“Oraingoan [azaroaren 29an] –diote Attacekoek– urrunago joan nahi dugu, jende gehiago askatu multinazional horiekiko lotura tamalgarririk. Zeren eta gure kontsumitzeko erak aldatzea posible badugu, kolektiboki ere aurre egin ahal izango diegu aldaketa askoz sakonagoa eragiteko. Oraingo ekintza are anbiziosoagoa da: Amazon blokeatu behar dugu azaroaren 29an. *Black Friday* -k ospatzen ditu prezioen hondoratzea eta muturreko kontsumismoa, planeta txukun batean duintasunez bizi ahal izatearekin inolaz ere ezkondu ezin dena”.

Globalizazio neoliberalaren salatzaile nagusietakoa den Attacentzako, Amazon

da aginte handiegia eta arriskutsuegia eskuratu duten multinazionalen adibide argia. Eskubide sozial, giza eskubide, ekosistemekiko begirune edo iruzur fiskalei dagokienean, estatuen gainetik jartzea lortu dute, egitura politikoak ahulegi direlako haien indarraren eta *lobby* egiteko ahalmenaren aurrean.

Hain dira boteretsuak, ezen eta dauden legeen zirrikituak oro baliatzen baitituzte gogoko ez dituzten arauak iskin egiteko, eta bestela agintari politikoei presio egiten diete haien komentziara aldarazteko legeak: “Multinazionalok dira merkataritza askearen irabazle nagusiak, horri esker herrialdeak elkarren arteko borrokan jartzen dituzte, nork eskainiko arau sozial, fiskal eta ekologiko ahulagoak”.

Amazon erraldoiari aurre egiteko arrazoi lokal bat ere badu Attac frantzesak: munduan 10.000 milioi produktu on-line saldu eta banatzeaz gain hedabideak, zinema, adimen artifiziala eta baita espazio-proiektuak ere biltzen dituen multinazionala ahalegin berezia egiten ari da Frantzian indartzeko. Erraldoi amerikarra dagoeneko Hexagonoan ere liderra da internet bidezko janzkien, eta produktu kulturazko eta elektronikoen salmentan, baina Frantziako enpresek ekoiztutako produktu gutxiegi saltzen dira oraindik Amazonen sarean.

2007an iritsita, Amazonek Frantziako lehen biltegia Orleans hirian eraiki zuen, 70.000 m<sup>2</sup>. Geroztik, armiarma bezala doa hedatuz bere sarea, berrikitan Gas-

par Allens kazetariak “*Amazonen Frantziarako plan sekretua*” kronikan azaldu duenez. Biltegiak gero eta erraldoiagoak, logistikan ohikoak direnen zortzi edo hamar halakoak: 107.000 m<sup>2</sup>-koa inauguratu zion Bovesen Emmanuel Macron lehendakariak, Paris ondoan aurten bertan 142.000 m<sup>2</sup>-ko beste bat abiaraziko du... Helburua denean sal-erosketa guztien monopolioa lortzea eta edozer banatzeko epea egun bakarreraino murriztea, gutxi axola hori lortzeko azpiegitura demenzialen lorratz ekologikoa, edo langileen bizi eta lan baldintzak.

### MORATORIA ETA BESTELA BLOKEOA

Iruzur fiskalean munduko txapeldunen artean dago Amazon. Agintariak hasi dira zenbait neurri hartzen iruzurrari eufemismoz *saiheste fiskala* deitzen diotena kontrolatzeko, Macronek abian jarri duen *GAFAtasa* (GAFa: Google, Apple, Facebook, Amazon). %3 soil bat... berehala Amazonek erantsi diena bere plataforman saltzen duten konpainiei, legegileei barre eginez.

Attacen ustean ia deusetarako ez du balioko zerga berriak, multinazionalak herrialde bakoitzean deklaratzeko baitute aktibitate osoaren nahi adinako zatia, ez gehiago. Frantzian mugitzen duen guztiaren %58 ezkututzen du horrela Amazonek, Attacen kalkuluetan. Gainerako dirutza berriro fakturatzen die atzerriko filialei, tartean Europar Batasunaren barne paradisu fiskala den Luxenburgokoari. Beste zati bat, jabeago



### BANAKETA KUTXAK

IZANGO DIRA AZAROAREN  
29KO PROTESTETAKO  
ITUETAKO BAT. ARGAZKIETAN,  
DUNKERKE HIRIAN  
AMAZONEN KUTXETAN  
URRIAN EGINDAKO EKINTZA.

intelektualez beztiturik, AEBetako Delaware zerga-paradisura igortzen du, etekinetatik deskontatuz. Eta abar.

Amazonek enpresa frantsesei erantsi dienean Macronen *GAFAs* tasa (%3), hornitzaileok ez dute txintik atera, hain daude saltzaile handiak harrapatuta, ohituta kontratu baldintzak edozein momentutan aldatzen ikustera. Egia esan, Amazonek muturrerago eraman baizik ez du egin komertzio handiak hornitzaileekiko aspalditik ezarritako zanaketa.

Langileei ematen dien tratua da Attac Amazonen kontra mobilizatzeko beste argudioa. Jean-Baptiste Malet kazetaria multinazionalak Montelimarren daukan biltegian kontratatzea lortu eta oinezko langile gisa pairatu eta ikusi zituenak kontatuak ditu *"Amazonie. Infil-tré dans le 'meilleur des mondes'"* -Amazonia, mundu perfektuan infiltraturik- libu-

ruan. 2013an Malet kontakutako lan baldintza prekarioak Amazonetik alde orotara zabaldu dira geroztik.

Malet erakutsi du jendeak uste duenaren kontra Amazon ez dela liburu edo kultur produktuen saltzaile bat, logistikako korporazioa baizik, Txinako usinen antza gehiago duena Europako kultur enpresena baino, teknologia berriei esker ugazabek daukatela langilearen kontrol osoa, nahieran antolatzeko lan erritmoak, harremanak edo soldatak, lan harremanok hizkera orweldarrez mozorrotuta (langilearen produktibitatea, motibazioa, hazteko irrika...).

Horrelakoa da Frantziako agintariak urteotan elikatu duten Tartalo berria. Hollande bezala Macron saiatu dira Amazon limurtzen. Alkate eta udal gobernu taldeak edozer eskaintzeko prest egon dira, udal zorrak arindu eta enple-

gu berriak kontabilizatzeaz obsesionatuta: onartu dituzte klase guztietako inbertsioak, zerga arintzeak edo lurren antolamenduak, batzuetan planak sekretuan negoziatuta.

Attacen protestak ingurura bildu ditu beste zenbait elkarte ere, hala nola ANV-Cop21 eta Lurraren Lagunak talde ekologista, eta Jaka Horiek ere parte hartuko dutela iragarri dute, Amazon dela beren etsai nagusia. Hauen 42 eskarietako bat izango da azaroaren 29ko mobilizazioaren helburua: moratoria batez etetea Amazonek, merkataritza elektronikoko beste enpresek eta komertzio handiek aldirietan eraiki nahi dituzten biltegi berriak eraikitzeko planak: "Lortzen ez badugu, orduan zuzenean joko dugu Amazonen kontra: blokeoak eta klase guztietako trabatzeak, Frantziatik alde egitea erabakitzen duten arte". ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i